

FRANTZIAK BEREALDIKO “IRAULTZA” BEHAR DU

En marche!-ko Emmanuel Macron eta Fronte Nazionaleko (FN) Marine Le Pen lehiatuko dira berriz ere maiatzaren 7an. Inkesten arabera Macron liberalak (bozen %23,49 eskuratu du) aise gaindituko du Le Pen eskuin muturrekoa (%22,09) bigarren itzulian: bozen %60 eta %40 inguru jasoko lituzkete hurrenez hurren. Presidentzialetako parte-hartzea ohikoa izan da: %77,3. Inkestek iragarritako kronika baten isla dira lehen itzuliko emaitzak.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Frantziako gobernagarritasuna gero eta zailagoa da gaur gero. Azken hirurogei urteetan Hexagonoko politika kudeatu duten bi alderdi nagusien egungo ordezkariak –Les Républicains (LR) eta Parti Socialiste (PS)– ez dute “beren” presidentea Eliseon izango. Eskuindarren porrota handia izanda ere, François Fillonek bozen %19,75 erdietsi du; haatik, PSko Benoît Hamon hautagaiak jaso du (%6,2) jipoi gaitzena. François Hollande presidenteak (PS) berari sostengua eman izan arren, PSk ezin izan du bere hondoratzea ekidin. *La France insoumise*-ren ordezkari Jean-Luc Mélenchonek (%19,45) gogor eragin du PSren gain-beheratze horretan, alabaina ezkerrek ez du Eliseoko aginte makila eskuratu, ezta hurrengo gobernuan izateko aukerarik ukanen honezkero.

Bozen erabilgarritasuna baieztatu da

Mendebaldeko sistema demokratiko kapitalistan –AEBetako Trump fenomeno gogoan– hauteskondeek hartu duten jitea kontuan hartuta, Frantziako presidentzialetan inkestek iragarritako emaitzek ez dute hautesleen boto asmoa desitxuratu. Egiari zor, inkesten datuak eta bozketaren emaitzak oso hurbil geratu dira. Zalantzarik gabe, botoen erabilgarritasuna –*vote utile* delakoa– ez da alferrikakoa izan. Boz erabilgarrien jasotzaile nagusia Emmanuel Macron izan da, bistan denez. Halaber, kritikak kritika, eta kanpainan kalbarioa pasa duen Fillonek boz “askotxo” jaso du: bozen %20. Mélenchonen ehunekoa ez da ho-

rren apala, izan ere, ia-ia Filonen pare atera da. Hautesleen bozak aski neurtuak eta pentsatuak izan dira. Eskuin muturreko bigarren hautagai Nicolas Dupont-Aignanek (bozen %4,87) ia bost puntu erdietsi du. Kasuon, bozen erabilgarritasuna ez da bete, Le Peni hainbat boz “hartu” diola pentsa daiteke. Erabilgarritasunaren paradigma PSko hautagai Hamonengan islatu da. Eskuin muturreko Dupont-Aignanek hein bertsuan geratu da, ozta-ozta gainditu du bozen %6a. Gainerako beste bostek, iragarritako emaitzak jaso dituzte: Jean Lassalle, %1,25; Nathalie Arthaud, %0,67; Philippe Poutou, %1,12; François Asselineau, %0,92; Jacques Cheminade, %0,18.

Denak Le Penen aurka, bigarreanean

Marine Le Penek 7,5 milioi boz eskuratu du, inoizko kopururik handiena. Nicolas Dupont-Aignan-ek milioi inguru. Frantziako eskuin muturra gorantz doa. Dupont-Aignanek ez du argitu orainokoa Le Penen aldeko boz eskatuko ote duen bigarren itzulian. Mélenchonek ere ez du Macronen alde eginen duenetz adierazi. Biek ala biek, euren jarraitzaileen esku utzi dute erabakia. Gainerako alderdi handien ordezkari guztiek beren aburua eman dute jada: Macron da euren hautagaia. Batzuek, ez daudela haren alde erran dute, Le Penen aurka bai zik, Frantziaren duintasuna salbatu ahal izateko aukera bakarra Macron presidentea izatea omen da. Itxura guztien arabera, Emmanuel Macron jalgiko da goaile maiatzaren 7an, alabaina, egun-

go *establishment*-en sostengua ukan badu ere –Macron Frantzia Europan bermatzeko aukera sendoena da botere finantzarien arabera–, Frantziako alderdi historiko eta sendoenen ordezkariak ez daude lasai Frantziaren etorkizunari begira. Atzoko hauteskunderen ondoren, Frantzia lau bloke politikotan zatitua da. Gobernagarritasuna bipartidismoan bermatu izan da orain arte. Macron presidente izan daiteke, baina uneon ez dauka ez diputatu ez senatari bakar bat ere Frantziako Legebiltzarrean. Le Penen FNk ez du ia ordezkaritarik goi-mailako parlamentu eta instantzietan. Uneon, ageri denez, Frantzia zatituta dago. Macron patriota liberalaren politikari men egiten diotenak alde batean eta frantziar nazionalismoaren aldekoak bestean. Hauteskunde legegileak –*legislatives* delakoak– ekainean eginen dira. Jende asko dago, ez ote den alderdi klasikoaren aroa pasa. Fronte Nazionalari “*barrage* edo harresia” jartzeko Macron sostengatuz hartzen duten arriskuaz jabetzen dira hala ere. PS eta LRko ordezkari gorenak Macron bozkatzera deitu dute bigarren itzulian, baina funtsean, haien zat bi aukera txarren artean, “ez horren txarra”-ren alde egin dute. Irudiz, V. Errepublikaren aroa amaitu da. Frantziak berealdiko “iraultza” behar du. Batetik, estatuaren osaketan dituen hamaika arazo konpontzeko, eta bestetik, Europan izan duen lekua eta jokatu duen rola berreskuratuko baditu, mende mende izan duen kohesio politikoa birmoldatu beharko du. ■

